

# HERRITARREN PARTAIDETZA UDALETAN

(Intereseko txostena, erabakitzeko non kokatu partaidetzaren eskumenak udalaren organigrama berrian, eta informazio gehiago ordenantzei buruz eta udaleko arduradun politiko batek ezagutu behar dituen materialei buruz)



Nafarroako Gobernuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak prestatu du txostena, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin herritarren partaidetza dela-eta sinatu duen lankidetzeta-protokoloaren barnean

2019ko ekainean

Egilea:

Laguntzailea:

# Aurkibidea

SARRERA .....	3
NON KOKATU PARTAIDETZAREN ARDURA UDALAREN ORGANIGRAMAN ..	4
PARTAIDETZAREN ERREGULAZIOA UDALETAN .....	5
GOMENDIOAK UDALETAN HERRITARREN PARTAIDETZARI HELTZEKO.....	6
ERREFERENTZIAKO DOKUMENTAZIOA .....	9

# SARRERA

Txosten honek bi azterlan ditu oinarri, Nafarroako Gobernuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak prestatu dituenak Javier Espinosa Ochoa (HUMARO) aholku-emailearen laguntza teknikoarekin.

Azterlan horietako batek zenbait gako analizatzen ditu 2015-2019 legegintzaldian Nafarroako 36 udalerrri aktiboenetan izandako herritarren partaidetzaz, eta bereziki izan du kontuan egitura politikoak nahiz teknikoak sortu izana udal horien barnean.



Beste azterlanean, berariaz herritarren partaidetzari buruzkoak diren lege-tresnak analizatzen dira (ordenantzak eta erregelamenduak). Monografiko horretan, azken hamarkadetako ordenantzak eta erregelamenduak aztertu dira, haien eboluzioa eta aldea, eta aipamen berezia egiten zaie legegintzaldi honetan prestatu eta onetsi direnei.

Agiri honek helburu du ondoriorik aipagarrienak ateratzea azterlan horietatik, batetik, laguntza emateko joan den 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetatik sortu diren udalbatza berriei, bidezkozat jotzen dituzten erabakiak har ditzaten herritarren partaidetzak udalen organigraman izan behar duen tokiari dagokionez, eta, bestetik, irizpideak eta informazioak emateko, herritarren partaidetza sustatzearren.

# NON KOKATU PARTAIDETZAREN ARDURA UDALAREN ORGANIGRAMAN

Azterlanaren xedeko 36 udalerrietan, herritarren partaidetzaren gaineko zinegotzigoen eta alorren sorreran nabaritzen da herritarren partaidetza eboluzionatu dela.

Ondoko grafikoek erakusten duten bezala, udal gehienetan esleituta daude partaidetzaren ardurak. Hori egiazki positiboa da. Zinegotzigo partekatuak dira formularik ohikoena, eta, horren atzetik, alkatetzari esleitzea zuzenean politika hori. Gutxiago dira zinegotzigo berariazkoak, eta tamaina handiagoko udalei dagozkie, edo partaidetzarekin sentikortasun handia dutenei.



Iturria: Partaidetzari buruzko galdetegia. Humaro. Guk egina

# PARTAIDETZAREN ERREGULAZIOA

## UDALETAN

Berriazko ordenantzak edo erregelamenduak dira, herritarren partaidetza sustatzeko, udalek bere esku dituzten tresna garrantzitsuenetakoak.

Izan ere, azken urteotan, berriazko ordenantzak edo erregelamenduak prestatu dituzte Nafarroan herritarren partaidetzaren arloan aurreratuen dauden udaletako batzuek. Aurreko legegintzaldietan zenbait ekimen gauzatu baziren ere, azken urteotan udaletan partaidetzaz egin diren araudiak aurreratuagoak dira, parte hartzeko demokraziaren ereduari egokituagoak. Azken araudi horietako puntu positiboan artean, nabarmendu behar da ezen, zenbait alderdi amankomunak badituzte ere, egokituago daudela udalerrri bakoitzaren egoera espezifikotara, eta horrek argi uzten du lan handia egin dela aldez aurretik.

Erregelamenduak eta/edo ordenantzak dituzten udalerrriak tamaina handienekoak dira, edo herritarren partaidetzaren sustapenean gehien jardun dutenak.

Horretan oinarrituta, eta, hurrengo legegintzaldian udalek ekimen gehiago hartuko dituztelakoan partaidetzaren inguruan, zenbait aholku eman nahiko genituzke, gure iritzi garrantzitsuak direnak:

- 1-** Ordenantza edo erregelamendu bati ekin baino lehen, komenigarria da aldez aurreko esperientzia izatea partaidetzaren arloan, horrela ikasten baitugu eta araudia gehiago egokituko baita udalerrriaren premietara.
- 2-** Araudiak partaidetzaren planifikazio orokorraren parte izan beharko luke, ordenantzek eta erregelamenduek ezin baitute bere gain hartu partaidetzaren udal sistema batek eskatzen duen guzti-guztia. Horregatik, komenigarritzat jotzen da beste udalerrri batzuen oraingo araudiak ezagutzea, gero nork bere udalerrriaren testuingurura egokitzeko.
- 3-** Araudia prestatzeko, barneko partaidetzaren prozesu bat egin beharko da, eta ondoren, kanpoko bat.
- 4-** Oso garrantzitsua da ordenantzak eta erregelamenduak toki entitatearen webgunean argitaratzea, herritarrei ezagutaraztea eta modu errazean eta eraginkorrean eskura egotea.

# GOMENDIOAK UDALETAN HERRITARREN PARTAIDETZARI HELTZEKO

Azken urte hauetan udaletan herritarren partaidetza sustatzean lortutako esperientziarekin, eta Nafarroako zenbait forotan sortu diren hausnarketak eta proposamenak aintzat harturik, hona hemen gomendio aipagarri batzuk:

## **1- Erabakitzea non kokatu herritarren partaidetzaren eskumenak.**

Toki entitateak herritarren partaidetza sustatu eta udalaren kudeaketa-ereduan txertatu nahi badu, komeni da ardura hori zehazturik eta identifikaturik egotea, behar bezala, udalaren organigraman. Horretarako, aukera bat da zinegotzigo batek partaidetza bere gain hartzea, gai horri garrantzia emanez bere arduren artean. Segun eta zenbat zinegotzi diren eta udalerriak zer tamaina duen, zinegotzigo horretan udalaren beste eskumen batzuk tartekatu daitezke (berdintasuna, gizarte zerbitzuak, gazteria, etab.), edo ez, eta zinegotzigoa berariazkoa izan. Beste aukera bat, egokiagoa tamaina txikiagoko udalerrientzat, ardura horiek alkatetzari atxikitzea da. Edonola ere, zeharkakoa izanen da partaidetzaren kudeaketa, udalaren alor guztietan egon behar baitu presente.

## **2- Konpromiso nagusiak zehaztea.**

Funtsezkoa da toki entitate bakoitzak, erabaki baino lehen eskumen hori non kokatu, zehaztea zein diren bere konpromiso nagusiak alor horretan legegintzaldi honetarako, ahal dela, eta hausnartzea nola heldu nahi dion partaidetzari eta zer baliabiderekin, egitura osatu baino lehen.

## **3- Berariazko batzorde bat eratzea barneko planifikaziorako eta koordinaziorako<sup>1</sup>.**

Edozein dela ere arduraren kokapenaren inguruan hartzen den erabakia, komeni da barneko batzorde bat eratzea, zeharkakoa, politikariek eta alorretako teknikariek osatua (halakorik balego).

Batzorde horrek helburu garrantzitsu batzuei heldu behar die:

---

<sup>1</sup> Oharra.-Toki entitateak baliabide tekniko espezializatuagoak baldin baditu kudeaketa arloetan, komeni da planifikazio estrategikoagori heltzea (Kontsulta ezazu "Erreferentziako dokumentazioa" atalean agertzen den gidaliburua).

- a) Zehaztea zer jotzen duen partaidetzatzat eta haren mugak zedarritzea.
- b) Zehaztea zer araudi eta zer mekanismo duen egun toki entitateak partaidetzaren inguruan.
- c) Legegintzaldiko bide orria adostea. Erabakitzea prestatu eta/edo egokitu nahi den berariazko erregelamendu edo ordenantza bat.
- d) Oinarrizko planifikazioa egitea urtero, jarduketa nagusiak, bakoitzaren ardurak eta beharrezko baliabideak finkatuko dituen.

#### **4- Prestakuntza eta sentikortasuna.**

Gomendatzean da toki entitateko politikariek eta teknikariek oinarrizko prestakuntza hartzea herritarren partaidetzari dagokionez, eta, horretarako, probestu beharko dituzte Nafarroan eskaintzen diren prestakuntza-saioak, eta parte hartu Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak antolatzen dituzten jardunaldi eta foroetan.

Toki entitate ertain eta handietan, komeni da sentikortasunaren eta prestakuntzaren oinarrizko ekintzaren bat egitea entitateko politikari eta teknikariek.

Halaber, komenigarria litzateke baliabideak erabiltzea herritarren sentikortasunerako, dela zuzenean, dela herriko elkarten bidez.

**5- Oinarrizko dokumentazioa ezagutzea, baita udaleko eta autonomia erkidegoko araudia** (agiri honetan aipatzen den dokumentazioa irakurri beharko litzateke).

#### **6- Jakitea zer eskaintzen duen Nafarroako Gobernuak parte hartzeko proiektuak sustatzeko**

Nafarroako Gobernuak administrazio unitate bat dauka, herritarren partaidetza espezializaturik dagoena: [participacionciudadana@navarra.es](mailto:participacionciudadana@navarra.es) . Aholkularitza eskaintzen die toki entitateei, laguntzen deialdiak egiten ditu proiektuak gauzatzeko, udalen jardunbide egokiak aitortzen ditu eta Interneteko euskarria paratu gogo du udaletako partaidetza proiektuentzat.

**7- Parte hartzeko prozesuak erraztu eta dinamizatzen dituzten espezialistak kontratatzeke aukera.**

Parte hartzeko prozesu konplexuagoak garatzeko, gomendatzen dugu halakoak erraztu eta dinamizatzen dituzten espezialistak kontratatzea. Nafarroako Gobernuak zerrenda bat dauka gure komunitatean alor horretan aritzen diren enpreekin. Kontratazio horiek dakartzaten gastuak aurreikusita daude Nafarroako Gobernuaren deialdietako laguntzetan.

Orobat, komeni da jakitea zer beste baliabide egon daitekeen toki garapeneko agentziei lotutako lurraldeetan.



# ERREFERENTZIAKO DOKUMENTAZIOA

Azken legegintzaldian, Nafarroako Gobernuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin duen lankidetzaprotokeoloaren barnean, material asko eta oso erabilgarria prestatu du udaletako partaidetzaren zenbait punturen inguruan, eta, hortaz, irakurtzea gomendatzen dugu.

## **PARTAIDETZARI BURUZKO GIDALIBURUAK:**

---

### HERRITARREK TOKI ENTITATEETAN PARTE HARTZEA

[http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/gobernanza/01\\_clavesparticipacion\\_castellano\\_red.pdf](http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/gobernanza/01_clavesparticipacion_castellano_red.pdf)

### AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

[http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/gobernanza/02\\_presupuestosparticipativos\\_castellano\\_red.pdf](http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/gobernanza/02_presupuestosparticipativos_castellano_red.pdf)

### PARTE HARTZEKO UDAL PLANAK

[http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/gobernanza/03\\_planesparticipacion\\_castellano\\_red.pdf](http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/gobernanza/03_planesparticipacion_castellano_red.pdf)

### GIDALIBURU PRAKTIKOA HERRITARREN PARTAIDETZA ERRAZTEKO

[http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/guiatecnicasparticipacion\\_castellano.pdf](http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/guiatecnicasparticipacion_castellano.pdf)

## **PARTAIDETZARI BURUZKO ORDENANTZAK ETA ERREGELAMENDUAK**

---

Partaidetzari buruzko ordenantzen eta erregelamenduen azterlana dela eta, Nafarroan egin diren araudi guztiak bildu dira, eta ondoko estekan daude eskura:

<http://www.fnmc.es/wp-content/uploads/sites/135/2019/05/Listado-de-Reglamentos-y-Ordenanzas.pdf>

## **PARTAIDETZARI BURUZKO NAFARROAKO LEGEDIA**

---

12/2019 FORU LEGEA, martxoaren 22koa, Nafarroako Partaidetza Demokratikoari buruzkoa.

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=51385>

## **HERRITARREN PARTAIDETZAK MAILA LOKALEAN DITUEN ERRONKEI ETA AURRERAPENEI BURUZKO DOKUMENTUA**

---

Agiri horretan laburbiltzen dira 2018ko azarotik 2019ko urtarrilera Nafarroako Erriberan, Mendialdean eta Erdialdean eginiko hiru jardunaldietan eragile lokalek egindako gogoetaren ondorioak.

<http://www.fnmc.es/wp-content/uploads/sites/135/2019/05/ConclusionesJornadasTerritorialesParticipacion.pdf>